

EUSKARAREN PRESENTZIA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN

Pablo Sotés Ruiz

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntza Plangintzarako Zuzendaria

Helbide elektronikoa: psotes@unavarra.es

1. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN EZAUGARRIAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzen da Nafarroako Parlamentuak 1987an bere sorrera onartzen duenean, ikastegi publikoetan ematen zen unibertsitateko irakaskuntza handitzeko asmoz. Unibertsitatean 1989an lehenengo titulazioak 500 ikasleei eskaini zitzaizkien. Bi hamarkadetan unibertsitateko ikasketak gehitu dira eta horrekin batera ikasleen kopurua 7.000 inguru izatera ailegatu da. Hiru campusetan banaturik dago: hasieratik bi Campus Iruñean (Arrosadikoa eta Osasun Zientzietakoa) eta 2008ez geroztik Tuterako Campusa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaskuntza eta ikerketa antolatzen dira hiru Fakultate (Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea, Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea eta Zientzia Juridikoen Fakultatea), hiru Eskola (Nekazaritza Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoa, Telekomunikazio eta Industria Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoa eta Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskola) eta hogeita bi Departamenturen inguruan. Departamendu hauetan 1088 irakasle eta ikertzaile integratuta daude. Unibertsitateko administrazioan eta zerbitzuetan 475 langile daude.

2009-2010 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoak eskaini dituen titulazioak osotara 53 dira, horietatik lehenengo ziklokoak 19 dira, bigarren ziklokoak 7, Europako unibertsitate-eremuari egokitutako 2 gradu berri eta 25 master ofizial.

2. EUSKARA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN

Nafarroako euskararen egoera ofizialak Euskarari buruzko Foru Legean (*Ley Foral del Vascuence*) du abiapuntu (1986). Lege horrek dio bere bigarren artikuluan gaztelania eta euskara Nafarroan bertako hizkuntzak direla, eta beraz herritar guztiek biak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutela. Modu berean, irakaskuntzari dagokionez hemeretzigarren kapituluaren herritar guztiek hezkuntza-maila ezberdinetan bi hizkuntzetan irakaskuntza jasotzeko eskubidea dutela aitortzen du Legeak. Euskarari buruzko Legearen arabera hiru-hizkuntza eremutan banatzen da Nafarroa: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna. Eremu bakoitzean irizpide jakin batzuk aplikatzen dira euskarazko hezkuntza-ereduak ezartzeari dagokionez.

Nafarroako Gobernuak 2004an argitaratutako "Euskarari buruzko Ikerketa Soziolinguistikoa Nafarroan: hizkuntza-gaitasuna, erabilpena eta jarrerak.2003 / *Estudio Sociolingüístico sobre el vascuence en Navarra. 2003. Competencia lingüística, uso y actitudes*" izeneko liburuan nafarren %11,8k euskara ongi ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten dute eta %10,1ek zailtasunez egiten dute.

Bost urte igaro ondoren, Nafarroako Gobernuak 2009an argitaratu zuen "Euskararen Egoera Nafarroan 2008". Azterlan soziolinguistikoa honen arabera Nafarroan bizi diren 15 urtetik gorako biztanleen %11,9 elebidunak dira eta %6,2k ez dute euskaraz ongi hitz egiten. Adinaren arabera, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen hizkuntza-profila hauxe da: %19,8 elebidunak, %9,6 ia-elebidunak eta %70,6 gaztelaniadunak. Horrek suposatzen du unibertsitatean dagoen ikasleen populazioa euskaldunena dela, nolabait esateko. Eta azterlanak ere aipatzen du Goi Mailako irakaskuntzan, hots unibertsitatean, Nafarroako biztanleek euskaraz egindako ikasketak Diplomaturan, Lizentziaturan eta Graduondoa, Doktoretza edo Masterretan %1,9, %3 eta %3,2 direla, hurrenez hurren.

Beste aldetik, Eusko Jaurlaritzak 2008an argitaratutako IV. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2006an Nafarroako populazioaren %11,1 elebiduna da, %7,6 elebidun hartzailea eta %81,3 erdaldun elebakarra. Adinari dagokionez, 16 eta 24 urte bitarteko gazteengan elebidunen (%19,1) eta elebidunen hartzaileen (%10,2) ehunekorik handienak dira.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zenetik 7 errektore izan ditu eta honekin batera euskararen planifikazioak bizi izan duen egoerak gora behera asko izan ditu. 1992an unibertsitatean lehenengo euskara teknika-ria kontratatzen da itzulpenak eta hizkuntzaren planifikazioa egiteko.

2009-2010 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoak eskaini dituen titulazioak osotara 53 dira, horietatik lehenengo ziklokoak 19 dira, bigarren ziklokoak 7, Europako unibertsitate-eremuari egokitutako 2 gradu berri eta 25 master ofizial.

*Nafarroako biztanleek
euskaraz egindako
ikasketak Diplomaturan,
Lizentziaturan eta
Graduondoa, Doktoretza
edo Masterretan %1,9, %3
eta %3,2 direla, hurrenez
hurren.*

*Nafarroako Unibertsitate
Publikoa sortu zenetik 7
errektore izan ditu eta
honekin batera
euskararen planifikazioak
bizi izan duen egoerak
gora behera asko izan
ditu.*

1993an Gobernu Batzordeak “Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Administrazio-jardueran Euskara Arautzeko Behin-Behineko Plana” onartu zuen. Plan honetan gutxieneko batzuk onartzen ziren, gehienbat Administrazio jardueran euskara arautzeko proposamenak eginez. Garai hartatik aurrera matrikulazioan ikasleei euskarari buruzko inkesta egiten hasi zen.

Hizkuntza Normalizaziorako Errektoreari Atxiki kargua 1994an indarrean jarri zen. Nafarroako Unibertsitate Publikoko lehenengo Estatutuak (68/1995 Foru Dekretua, martxoaren 13koa) 1995an onartzen dira eta euskarari buruzko kapitulu bat sartzen da. Bertan hainbat eskubide ezartzen dira eta Hizkuntza Plangintzarako Batzordearen eta Euskarako Unitate Teknikoaren sorrera finkatzen da. Urte berean, “Hizkuntza Normalizaziorako Egitasmoa 1995” onesten da hiru ardatz nagusi zituelarik: irakaskuntzen garapena, Administrazioaren ezarpena eta informazio eta erabileraren normalizazioa. Hiru ardatz nagusi horiekin batera aurrekontu bat aurkeztu zen. Proposamen hau berehala indargabe gelditu zen hurrengo errektorea hilabete batzuk beranduago izendatu zenean. Hizkuntza Normalizaziorako Zerbitzua 1996an sortu zen. Ondoren, orri bateko erabaki bat onartu zen 1997an, soilik 1997-1998 ikasturteko euskarazko irakasgaien eskaintza arautzeko. Harez geroztik, Hizkuntza Plangintzarako Batzorde ezberdinek euskara normalizatzeko plan ezberdinen proposamenak egin zituzten baina ez zuten bere helburua lortu, horien artean 2000ko “Nafarroako Unibertsitate Publikoan Hizkuntza Normalizaziorako Plan baten Proposamena”.

Gaur egun, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuek arautzen dute (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2003/05/19 63. zk. 5063 or., V Kapitulua. Euskara Unibertsitatean, 118-125 artikulua) euskararen tratamendua, Nafarroako unibertsitate-irakaskuntza publikoan. Unibertsitateko hizkuntza plangintzaren jardueraren oinarriak ezartzen dituzten artikulua hauek dira nabarmentzekoak Estatutu horietan:

118. artikulua

1. *Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntzak dira, eta, beraz, unibertsitateko kide guztiek dute biak jakin eta erabiltzeko eskubidea, hurrengo artikulua ezarritako moduan.*

119. artikulua

1. *Unibertsitateko Komunitateko partaide guztiek eskubide hauek dituzte: (...)*
 - c) *Unibertsitateak euskaraz eskaintzen dituen irakasgaietan irakaskuntzak euskaraz jaso eta eskaintzea, bai eta lanak, azterketak edo probak euskaraz egitea ere, Legeak ezartzen duen moduan.*
2. *Unibertsitateko organo guztiek, beren eskumen esparruetan, behar-tuta daude eskubide horiek bermatzen. Horretarako, Unibertsitateak behar diren baliabideak jarriko ditu.*

Estatutu berri honi jarraituz 2007ko martxoan Gobernu Batzordeak “Euskararen Plan Estrategikoa 2007-2009” onetsi zuen.

3. EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2007-2009

Plan Estrategiko honen sarreran aipatzen da “Unibertsitateak euskararen garapenaren bermatzailea izan behar duela, Nafarroako Gobernuak unibertsitate baino lehenagoko hezkuntza mailetan duen politikarekin bat etorritz” (3.or.). Beste alde batetik, hizkuntza plangintzari aipua egiten dio esanez “Nafarroako Unibertsitate Publikoak gizarte osoari eman behar dio zerbitzua, bere egoera soziolinguistikorekin bat etorritz, eta hori dela eta, beharrezkoa da (...) hizkuntza plangintza bere osotasunean garatzea, eskaera eta egokitasun-irizpideak aintzat hartuz (...)” (3.or.).

Plan Estrategiko honen ardatz nagusiak prestakuntza, ikerketa, pertsonak, zerbitzuek eta baliabideak dira. Horietako bakoitzaren barruan helburu estrategikoak daude, eta horien barruan, helburu operatiboak eta garatu beharreko jarduerak. Unibertsitatearen Plan Estrategikoak euskararen eremuan biltzen dituen helburuek eta jarduerak 12 ekimen proposatzen dituzte, lehen aipaturiko prestakuntza, ikerketa, pertsonak, zerbitzuak eta baliabideak ardatzen barruan.

3.1 Ikasleen euskararen ezagutza eta beren hizkuntzaren aukeraketa

Plan Estrategikoaren prestakuntza ardatzari dagokionez, lehenengo helburua da “ikaslearen elebitasun gaztelania-euskara sustatzea” (46 or.). Unibertsitatekoa ez den hezkuntzan (haur, lehen eta bigarren hezkuntza eta lanbide heziketa) 1988ko 159 Foru Dekretuak lau eredu linguistiko arautzen ditu: D eredua (irakaskuntza euskaraz), B eredua (irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz), A eredua (irakaskuntza gaztelaniaz euskarazko irakasgai batekin) eta G eredua (irakaskuntza gaztelaniaz).

Unibertsitatearen egin beharra da unibertsitatekoa ez den hezkuntza elebidun sistemari jarraipena ematea. Helburu honekin 2007tik aurrera unibertsitateak hizkuntza mapa prestatzen du euskarazko ikasketak diseinatzeko. Unibertsitatearen hizkuntza mapan datuak eguneratzen joaten dira.

Unibertsitatean sartzeko probei dagokienez, 2000 urtean euskaraz egin duten ikasleen %15,13 izatetik 2009an %20,51 eta 2010an %22,37 izatera pasatu da. Unibertsitatean sartu nahi duten ikasle euskaldunen ehunekoa goranzko joera mantentzen du.


Hizkuntza

Plangintzarako Batzorde ezberdinek euskara normalizatzeko plan ezberdinen proposamenak egin zituzten baina ez zuten bere helburua lortu, horien artean 2000ko “Nafarroako Unibertsitate Publikoan Hizkuntza Normalizaziorako Plan baten Proposamena”.


Unibertsitateak euskaraz eskaintzen dituen irakasgaietan irakaskuntzak euskaraz jaso eta eskaintzea, bai eta lanak, azterketak edo probak euskaraz egitea ere, Legeak ezartzen duen moduan.

Unibertsitatean sartzeko probei dagokionez, 2000 urtean euskaraz egin duten ikasleen %15,13 izatetik 2009an %20,51 eta 2010an %22,37 izatera pasatu da. Unibertsitatean sartu nahi duten ikasle euskaldunen ehunekoak goranzko joera mantentzen du.

2009-2010 ikasturtean euskarazko gaitasun ona edo oso ona aitortzen duten ikasleen %82,43k unibertsitatean euskaraz ikasiko lukete, horrela adierazten dute ikasleek matrikulatzerakoan betetzen duten galdetegian.




Euskaraz ongi dakitela esaten duten ikasleen ehunekoak hazten joan da 2004-2005 ikasturtetik 2009-2010 ikasturtera, %18,79tik %23,41era pasatuz.



Unibertsitatean dauden sei ikastegietan 2009-2010 ikasturtean ikasleen euskararen ezagutzan desorekak agertzen dira. Ikasle euskaldun gehien duen eskola osasun ikasketena da %39,84rekin. Aitzitik, ikasle euskaldun gutxien duen fakultatea zientzia juridikoena da %15,16rekin. Beste lau ikastegiak ikasleen euskararen ezagutzari dagokionez tartean kokatzen dira: %31,73 Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatean, %31,20 Nekazaritza Ingeniarien Eskolan, %19,04 Telekomunikazio eta Industria Ingeniarien Eskolan eta %18,50 Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean.

2009-2010 ikasturtean euskarazko gaitasun ona edo oso ona aitortzen duten ikasleen %82,43k unibertsitatean euskaraz ikasiko lukete, horrela adierazten dute ikasleek matrikulatzerakoan betetzen duten galdetegian.

3. Grafikoa: Euskarazko irakasgaietan matrikulatutako ikasleen bilakaera



Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskaraz eskaintzen dituen irakasgaietan azken bost ikasturteetan matrikulatu diren ikasleen ehunekoa 7,13 eta 10,18 bitartean dago. Goranzko joera egon arren matrikulatzen den kopurua ez dator bat 1. grafikoan agertzen den ikasleen euskararen ezagutzarekin ezta matrikulatzeko asmoa agertzen dutenekin ere. Gertaizun honen azpian egon daitezkeen arrazoiak ezberdinak izan daitezke: bere titulazioetan eskaintza ez egotea, irakasgai solte batzuk izatea eta ez aukeratzea, ordutegia deserosoa izatea,...

Unibertsitatean 2006an egindako “NUPeko Ikasleen Jarrerak eta Usteak Elebitasunaren eta Hezkuntza Elebidunaren Aurrean” (Sotés, Oroz eta Vilches, 2008) izeneko ikerketan emaitza adierazgarri batzuk agertzen dira. Euskarazko irakasgaietan ez matrikulatzea justifikatzeko eman zituzten arrazoiak dagokienez ohikoenak “aukerarik eza” (%24,9) eta “hizkuntza gaitasunik eza” (%21) izan ziren. Askoz ehuneko txikiagoa jaso dute “interesik ezak” (%6,5), “ordutegien bateraezintasunak” (%2,6), “gaztelania lehenesteak” (%1,7) edo “hizkuntza ikasten aritzeak” (%1,7) eta “hizkuntza ikasteko zailtasunak” (%1,1).

Ikerketa berean euskarazko irakasgaien eskaintza kalifikatzeko eskatu zitzaizkien ikasleei. Ikasleen erdiek baino zertxobait gehiagok (%52,3) “urria” zela iritzi zioten, %34,21ek “egokia” eta %7,9k “ez dagoela” erantzun zuten. Unibertsitateko titulazioetan euskarazko irakasgaiak sartzea komeni zen galderari baietz erantzun zion inkestatuen %76,5ek. %20,8rentzat, ordea, ez lirateke sartu beharko. Unibertsitatean euskaraz eskaini behar diren irakasgai motei dagokienez aukerarik hautatuena zen titulazio osoa euskaraz eskaintzea (%30,3). Aukera hori egiten zuten ikasleak elebidunak ziren eta D ereduan ikasi zutenak gehienbat. Aitzitik, ikasleen %15,7k iritzi zion bere titulazioko irakasgai bat bera ere ez zela euskaraz eskaini behar. Multzo horren barruan G ereduan ikasi zutenak

Goranzko joera egon arren matrikulatzen den kopurua ez dator bat ikasleen euskararen ezagutzarekin ezta matrikulatzeko asmoa agertzen dutenekin ere.

Euskarazko irakasgaietan ez matrikulatzea justifikatzeko eman zituzten arrazoiak dagokienez ohikoenak “aukerarik eza” (%24,9) eta “hizkuntza gaitasunik eza” (%21) izan ziren.

Euskarazko irakasgaien eskaintza kalifikatzeko eskatu zitzaaien ikasleei.

Ikasleen erdiek baino zertxobait gehiagok (%52,3) “urria” zela iritzi zioten, %34,21ek “egokia” eta %7,9k “ez dagoela” erantzun zuten.

zeuden. Bi aukera hauen artean %17,7k titulazio bakoitzeko irakasgai-sorta bat eta %13k hautaketa libreko irakasgaiak izan ziren gehien hautatu zirenak.


Argitaratu berri den “La Contribución Socioeconómica de la Universidad Pública de Navarra” (Pastor eta Peraita, 2010) liburuan euskarari dagokionez ateratzen diren emaitzen artean hizkuntzaren aukeraketa eta lanpostuaren lorpena dira hemen aipatuko direnak.

Lehenengoan, euskaraz ikasten ari diren ikasleei galdetu zitzaien zer egingo zuten Nafarroako Unibertsitate Publikoak aukeratutako ikasketak euskaraz eskaini izan ez balitu. Gehienek (%53,4k) beste unibertsitate batzuk aukeratuko zituzten: %37k Euskal Herriko Unibertsitatea, %5,5k Mondragon Unibertsitatea, %2,7k Deustuko Unibertsitatea eta %8,2k beste tokian ikastea. Euskal Herriko Unibertsitatean burutu zen antzeko azterlan batean (Pastor eta Pérez, 2008) emaitza berdintsuak agertzen ziren. Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen %52,5ek beste unibertsitate batzuk aukeratuko zituzten: %24,4k Mondragon Unibertsitatea, 15,2k Deustuko Unibertsitatea, %12,9k Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta %12,5ek beste toki bat.

Bigarren aztergaia da euskarari ematen zaion garrantziaren balioespena lanpostua lortzeko orduan. Ikasleen erdiek baino gehiagok (%54,3k) uste dute sektore pribatuan lanpostua lortzeko euskara jakiteak ez diola laguntzen. Berriz, euskaraz jakitearen lan-abantailak lotuago daude sektore publikoarekin, horrela usten badute hamar ikasletik zazpik (%70,1ek).

3.2 Unibertsitateko euskarazko irakasgaien eskaintza

Euskararen Plan Estrategikoak helburu duen ikaslearen elebitasun gaztelania-euskara sustatzeko, unibertsitateak diseinatu du euskarazko irakas-kuntza bere titulazioetan, behetik gorako eta zeharkako ibilbideak eginenez. Planaren helburua da “*titulazio bakoitzeko ikasmaila bakoitzean euskaraz enborreko edo nahitaezko irakasgai bat, gutxienez, eskaintzen duen eredu bat garatzea, halakorik nahi duen ikasleak eduki dezan euskarazko irakasgai bat titu-lazioko ikasmaila guztietan, hau da, gutxienez 1-1-1 eredu hiru ikasmailatako titulazioetan, eta 1-1-1-1 lau ikasmailakoetan. Irakasgai-kopuru hori handitzen joango da hurrenez hurren, (...), 3-2-1 eredurantz abiatuz (alegia, 3 irakasgai lehenengo ikasmailan, 2 bigarrenean, 1 hirugarrenean eta 1 laugarrenean, laugarrenenik izanez gero, ikasleen eskariaren eta irakasleen eskaintzaren arabera*” (50-51 or.). “*Titulazioari dagokion hizkera berezia ezagutzeko egokienak diren irakasgaiak aukeratuko dira, sail bakoitzak euskaraz irakasteko daukan gaitasuna kon-tuan hartuz*” (53 or.).



Euskararen Plan Estrategikoa 2007ko martxoan onartu ondoren, titulazioetan euskarazko irakaskuntza plan horretara egokitzeko irakasgai zehatzen diseinua eta proposamena egiten joan da Hizkuntza Plangintzarako Batzordea. Batzorde honen proposamenak azken bi ikasturteei (2008-09 eta 2009-10) zuzendu zaizkie, bitartean errektorea hautatzeko hauteskundeak egon zirelako.

2006-07 ikasturtea abiapuntua hartuz gero 2009-10 ikasturtean euskaraz eskaini diren irakasgaien kopurua ia %100 handitu da, 55etik 109ra pasatuz. Benetan gehikuntza nabaria 2007-2008 ikasturtetik 2008-2009 ikasturtera eman da. 4. grafikoan agertzen diren irakasgaiez gain Nafarroako Unibertsitate Publikoak azken lau ikasturte hauetan Irakasletzaren Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako berezitasunak osorik eskaini dira euskaraz eta Irakasletzaren Musika Hezkuntza eta Atzerriko Hizkuntzaren berezitasunetan beste bi berezitasunekin amankomunean dituzten irakasgaiak ere euskaraz eskaintzen dira. Azken ikasturtean, Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduak ere osorik eskaini dira euskaraz.

Euskararen Plan Estrategikoak proposatzen duen gutxieneko eredua (1-1-1-1) 2009-2010 ikasturtean unibertsitateak ematen dituen titulazio gehienetan betetzen da, Lan Harremanetako Diplomaturan, Soziologiako Lizentziaturan, Telekomunikazio Ingeniaritzan eta Tuterako Campusean ematen diren Fisioterapiako Diplomaturan eta Industria Ingeniaritza Teknikoan salbu.

Erreferentea den 3-2-1-1 eredua hartuz gero Irakasletzaren Diplomatura eta Graduez gain Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoan, Gizarte Laneko Diplomaturan, Ekonomiako Lizentziaturan, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturan, Enpresa Zuzendaritza eta Ikasketak Juridikoak Lizentziatura bikoitzean eta Industria Ingeniaritza Teknikoan Mekanika berezitasunean betetzen da.

Euskaraz ikasten ari diren ikasleei galdetu zitzairen zer egingo zuten Nafarroako Unibertsitate Publikoak aukeratutako ikasketak euskaraz eskaini izan ez balitu. Gehienek (%53,4k) beste unibertsitate batzuk aukeratu ziotuzten: %37k Euskal Herriko Unibertsitatea, %5,5k Mondragon Unibertsitatea, %2,7k Deustuko Unibertsitatea eta %8,2k beste tokian ikastea.

Ikasleen erdiek baino gehiagok (%54,3k) uste dute sektore pribatuan lanpostua lortzeko euskara jakiteak ez diola laguntzen. Berriz, euskaraz jakitearen lanabantailak lotuago daude sektore publikoarekin, horrela usten badute hamar ikasletik zazpik (%70,1ek).

3.3 Irakasleen euskaraz irakasteko gaitasuna


Euskararen Plan Estrategikoaren pertsonen ardatzean aipatzen diren ekintzen artean “Irakasle eta Ikertzaileen gaztelania-euskara elebitasuna bultzatzea” (48 or.) proposatzen da, baita “Irakasle eta Ikertzaileentzat, jakintza arloen arabera, euskarazko hizkuntza prestakuntza/trebakuntza emateko ikastaroak” ere (47 or.). Honi lotuta, planteatzen den ekintza nagusietako bat “euskara teknika sustatzea” da (46 or.).

Euskararen planaren arabera irakasleek eta ikertzaileek hizkuntza gaitasuna lortu behar dute unibertsitateak titulazioetan egin behar duen euskarazko irakasgaien eskaintza ziurtatu ahal izateko. Eta euskarazko irakaskuntza unibertsitatean bermatzeko irakasleen sustapenari laguntzea beharrezko ikusten da: “(...) eskaintza hori eta eskaintza betetzen duten irakasleak egonkortzeko ahaleginak egingo dira, titulazio bakoitzean euskarazko ibilbideak sortuz” (53 or.). Modu berean, dio “hizkuntza plangintza (euskaraz) kontuan hartuko duen Plantillen dokumentu berri bat prestatzea”. Hori dela eta, jarduera bat lotzen da euskarazko irakaskuntzarekin: “Euskaraz irakasten duten irakasle ez iraunkorrak sustatzen laguntzea, jabe egin daitezkeen kontratu iraunkorreko lanpostuez” (59 or.).

Unibertsitateko irakasleen artean EGA tituludunak edo baliokidea den Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. mailadunak 128 dira. Honek suposatzen du Europako Marko Bateratuaren arabera unibertsitateko irakasleen %11,76 erabiltzaile gaituak direla, baliokidetzen baitaie C1 (gaitasun operatibo eraginkorra) erreferentzi maila bateratuarekin.

Irakasleek ikasgaiak euskaraz irakatsi ahal izateko Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskaraz irakasteko hizkuntza gaitasuna balioesteko prozedurari buruzko arauketa 2004ko maiatzean onetsi zuen eta 2009ko maiatzean erabakia aldatu zuen (31/2009 Erabakia). Unibertsitateak hizkuntza horren ezagutza balioetsi eta egiaztatzeko modu bat ezartzen da arauketa horretan, titulazio eta irakasgai jakin batzuetan irakaskuntza eman ahal izateko. Erabaki honen arabera hizkuntza gaitasuna egiaztatzen da ondorengo kasuak betetzen direnean: EGA tituluaren edo legeek titulu baliokidearen balioa aitortutako beste edozein tituluren jabe izatea; edo, salbuespen gisa, erakunde batek emandako ziurtagiriaren bidez, gutxienez ere ikasturte bateko esperientzia egiaztatzea euskarazko irakaskuntza ematen unibertsitateko ikasketetan edo irakaskuntza ertainetan; edo ezinezkoa bada euskarazko hizkuntza gaitasuna agiriaren bidez frogatzea Euskararen Ezagutza Balioesteko Batzordeak ahozko eta idatzizko proba baten bidez egiaztatuko du izangaiak euskaraz irakasteko eskatutako gutxienerako ezagutza maila duen.

5. Grafikoa: Eskolak euskaraz ematen dituzten irakasleen bilakaera



Azken bost ikasturteetan eskolak euskaraz eman dituen irakasleen kopurua goraka joan da (5. grafikoa) unibertsitateak titulazioetan egin duen euskarazko eskaintzarekin batera. 81 irakaslek eskolak eman dituzte azken bi ikasturteetan %76,08 gehiago 2005-2006 ikasturteko irakasle kopuruarekin konparatzen bada. Beste alde batetik, 47 irakaslek EGA edo baliokidea den tituladunek ez dituzte unibertsitatean euskaraz eskolak ematen.

Unibertsitateak azken urteetan antolatutako ikastaro teknikoetan parte hartzeaz gain, irakasle batzuek mota ezberdineko ikastaroak (esten-tsiiboak, trinkoak, autoikaskuntza, mintza praktika edo barnetegiak) egin dituzte. 2006-2007 ikasturtean 9 irakaslek 11 ikastaro egin zituzten. 2007-2008 ikasturtean 14 irakaslek 22 ikastaro egin zituzten. 2008-2009 ikasturtean 39 irakaslek 46 ikastaro egin zituzten. Eta ikasturte honetan, 2009-2010an, oraingoz 20 irakaslek 24 ikastaro egin dituzte. Beraz, irakasleen hizkuntza-prestakuntza eta trebakuntzarako unibertsitateaz gain beste erakundeek antolatutako ikastaroetan gero eta parte hartze gehiago ematen da. Dena dela, 2008-2009 ikasturteko euskarazko irakasgaien eskaintzaren gehikuntza bermatzeko unibertsitateak irakasle elebidunak (eus-kara-gaztelania) kontratatu zituen eta printzipioz irakasle hauek ez zuten hizkuntza-prestakuntza behar. Hasieran euskaraz eskolak ematen zituzten irakasleen gehiengoak hizkuntza eskakizunarekin kontratatua ez zegoen bitartean gaur egun irakasgai berriak ematen dituzten irakasleak hizkuntza eskakizunarekin sartzen dira.

Unibertsitateak euskarazko irakasgaien eskaintza egiteko ezinbestekoa da irakasleek erabiltzen duten irakasmateriala euskaraz izatea. Euskararen Plan Estrategikoak ere gai honi buruz dio “Euskararako unitate teknikoak irakasleei laguntzen segituko du, euskaraz eskolak emateko beharrezkoa duten materiala prestatzen” (55 or.). Unibertsitateko irakasgaietarako eus-

Euskararen Plan Estrategikoak helburu duen ikaslearen elebitasun gaztelania-euskara sustatzeko, unibertsitateak diseinatu du euskarazko irakaskuntza bere titulazioetan, behetik gorako eta zeharkako ibilbideak eginez.

2006-07 ikasturtea abiapuntua hartuz gero 2009-10 ikasturtean euskaraz eskaini diren irakasgaien kopurua ia %100 handitu da, 55etik 109ra pasatuz.

Euskararen Plan Estrategikoaren pertsonen ardatzean aipatzen diren ekintzen artean “Irakasle eta Ikertzaileen gaztelania-euskara elebitasuna bultzatzea” proposatzen da, baita “Irakasle eta Ikertzaileentzat, jakintza arloen arabera, euskarazko hizkuntza prestakuntza/trebakuntza emateko ikastaroak” ere. Honi lotuta, planteatzen den ekintza nagusietako bat “euskara teknikoa sustatzea” da.

Euskararen planaren arabera irakasleek eta ikertzaileek hizkuntza gaitasuna lortu behar dute unibertsitateak titulazioetan egin behar duen euskarazko irakasgaien eskaintza ziurtatu ahal izateko.

karaz dauden testuliburuak eta oro har eskuragarria dagoen materiala urria da. Ondoko unibertsitateetan argitaratutakoa eta sortutakoaz baliatzen da unibertsitatea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskara hutsez argitaratu dituen liburuak 7 dira, osotara 229 liburu izanik. Lehenengoa 2000n argitaratu zuen eta azkena aurtengo uztailean argitara emango du. 2006 eta 2007an bi liburu elebidun (gaztelania-euskara) argitaratu zituen. Eta 2003an liburu hirueledun bat (alemaniera-gaztelania-euskara) argitaratu zuen. Materialaren gabeziari aurre egiteko unibertsitateko Hizkuntza Plangintzarako Zuzendaritzak urtero irekitzen ditu euskaraz irakasteko materiala euskaratzeko deialdiak (“Irakaskuntzarako Gaiak Euskaratzeko Deialdia”). 2007 eta 2010 bitarteko azken hiru ikasturteetan, deialdi hauetara aurkeztutako irakasle kopurua 15, 28 eta 11, hurrenez hurren izan dira. Aurtengo irakasle kopurua txikiagoa da bigarren deialdia oraindik ireki gabe dagoelako. Euskaratu beharreko materiala unibertsitatearekin hitzarmena duen itzulpen enpresa batek egiten du.

Ikertzaileei dagokienez, Nafarroako Unibertsitate Publikoan bi doktoretza tesi defendatu dira euskaraz, bata 2001ean historia politikoari buruz eta bestea 2004an zientzien didaktikari buruz. Gaztelaniaz, ordea, defendatutako doktoretza tesiak 566 izan dira.

3.4 Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen hizkuntza gaitasuna

Euskararen Plan Estrategikoak zerbitzuen ardatzean “Zerbitzuen arretan gaztelania-euskara zirkuitu elebidunak diseinatzea eta abian jartzea” (48 or. eta 59 or.) ekintzari lehentasuna ematen dio. Eta horrela segitzen du: “Hizkuntza eskakizuna edukiko duten lanpostuak sortzeko prozesuarekin segituz, aipatu eskakizuna edukiko duten lanpostuak zehazten jarraitzea beharrezkoa da, Unibertsitateko zerbitzuetan euskararen erabilera bermatzeko” (59-60 or.). Irakasle eta ikertzaileekin egiten den moduan administrazio eta zerbitzueta-ko langile elebidunen finkapena proposatzen da: “...proposatzen da zerrenda bat osatzea, euskaraz dakiten eta Unibertsitatean euskararen erabilpenean laguntzen prest egongo liratekeen pertsonekin. Langile euskaldunak hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetara bideratzeko, egokia den pizgarri-sistema garatuko da” (60 or.).

Unibertsitateko zerbitzuetan zirkuitu elebidunak burutzeko lehenengo jakin behar da administrazio eta zerbitzuetako langileen euskararen ezagutza-maila eta hortik abiatuta, administrazio arloen beharren arabera, euskarazko hizkuntza prestakuntza eta trebakuntzarako ikastaroak eskaintzea. Horretarako, Euskararen Plan Estrategikoak dio “Hizkuntza Plangintza Zerbitzuak proposatzen ahalko ditu prestakuntza-jarduera bereziak beren lanpostuetan euskara erabili behar duten hainbat talderentzat...” (56 or.) eta “...modu honetan prestatutako langileak onartu behar du euskaraz lan egitea horrelakorik eskatzen zaienean” (56 or.).

Administrazio eta zerbitzuetako langileen artean EGA tituludunak edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila dutenak 50 dira osotara. Honek suposatzen du Europako Marko Bateratuaren arabera unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileen %10,52 erabiltzaile gaituak direla, baliokidetzen baitaie C1 (gaitasun operatibo eraginkorra) erreferentzi maila bateratuarekin.

Administrazio eta zerbitzuetako langileek, unibertsitateak antolatutako euskara tekniko ikastaroetan parte hartzeaz gain, unibertsitatekanpoko euskarazko ikastaroetan ere matrikulatzen dira (NUPeKo Hizkuntzen Goi Mailako Ikastegia, Nafarroako Administrazio Publikoen Institutua, Hizkuntza Eskola Ofiziala, Euskarabidea, AEK edo IKA). Izaera ezberdineko ikastaroak (estentsiboak, trinkoak, autoikaskuntza, mintza praktika edo barnetegiak) egin dituzten administrazio eta zerbitzuetako langileak azken lau ikasturteetan ondorengoak izan dira: 2006-2007an 31 langilek 43 ikastaro, 2007-2008an 48 langilek 68 ikastaro, 2008-2009an 56 langilek 70 ikastaro eta 2009-2010an 46 langilek 61 ikastaro. Azken urtean ikastaro guztiak kontatu ez izan arren administrazio eta zerbitzuetako langileek gero eta gehiago parte hartzen dute hizkuntza-prestakuntza eta trabakuntzarako ikastaroetan.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak 2009ko maiatzean "Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Hizkuntza Eskakizunak Ezartzeko Jarraibideak definitzen dituen Erabakia" onetsi zuen. Erabaki honen justifikazioa da "Unibertsitateak lagundu egin nahi du normaltasunez erabil daitezen Foru Komunitateak dauzkan bi hizkuntzak, eta horrela, gaztelaniaz eta euskaraz hitz egiten dutenek beren hizkuntza erabil dezaten unibertsitatearekin eta bere zerbitzuekin dituzten harremanetan" (1 or.). Agiri honetan administrazio eta zerbitzuetako langileen hizkuntza eskakizunak esleitzeko jarraibideak biltzen dira. Lanpostu bati hizkuntza eskakizuna esleitzeko, kontuan hartuko den irizpide nagusia jendeari arreta ematearena izango da. Eta oro har, euskararen bi ezagutza maila soilik hartuko dira kontuan: oinarritzko zikloa, gaur egungo Hizkuntzen Erreferentziako Europako Esparru Komuneiko B1 maila, eta EGA edo C1, nomenklatura berriaren arabera. Gaur egun unibertsitatean dauden 50 langile euskaldunen artean 37 betetzen ari dira hizkuntza eskakizuna bere lanpostuan.

4. UNIBERTSITATEKO EUSKARAREN EGOERA ETORKIZUN HURBILEAN

Hurrengo ikasturtean 2010-2011 Nafarroako Unibertsitate Publikoak eskainiko dituen titulazioak nabarmenki handituko dira, aldi berean elkarrekin biziko baitira Europako Unibertsitate-eremuaren gradu berriak eta iraungitzeaz dauden lehenengo eta bigarren zikloko titulazioak. Ikasturte honetan ematen hasi ziren bi gradu berriez gain beste hama-

Unibertsitateko irakasleen artean EGA tituludunak edo baliokidea den Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. mailadunak 128 dira. Honek suposatzen du Europako Marko Bateratuaren arabera unibertsitateko irakasleen %11,76 erabiltzaile gaituak direla.

Azken bost ikasturteetan eskolak euskaraz eman dituen irakasleen kopurua goraka joan da unibertsitateak titulazioetan egin duen euskarazko eskaintzarekin batera.

*Hasieran euskaraz
eskolak ematen zituzten
irakasleen gehiengoak
hizkuntza
eskakizunarekin
kontratatua ez zegoen
bitartean gaur egun
irakasgai berriak ematen
dituzten irakasleak
hizkuntza
eskakizunarekin sartzen
dira.*

*Materialaren gabeziari
aurre egiteko
unibertsitateko
Hizkuntza
Plangintzarako
Zuzendaritzak urtero
irekitzen ditu euskaraz
irakasteko materiala
euskaratzeko deialdiak
("Irakaskuntzarako
Gaiak Euskaratzeko
Deialdia").*

sei gradu berri eskainiko dira hurrengo ikasturtean. Lehenengo zikloko 19 ikasketa eta bigarren zikloko 7 ikasketa ematen jarraituko da eta 23 master ofizial eskainiko dira.

1. Taula: 2010-2011 ikasturtean euskaraz eskainiko diren irakasgaiak

Fakultateak eta Eskolak	1. eta 2. zikloko ikasketak	Graduak
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	19	14
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea	27	55
Zientzia Juridikoen Fakultatea	11	5
Nekazaritza Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoa	14	8
Telekomunikazio eta Industria Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoa	15	28
Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskola	4	1
Osotara	90	111

Europako unibertsitate-eremua jartzearekin batera desagertzen joango diren 1. eta 2. zikloko ikasketetan osotara 67 irakasgai euskaraz eskaintzen jarraituko du unibertsitateak. Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateak 27 irakasgai euskaraz eskaintzen jarraituko du, gehienak Irakasletza Diplomaturako Haur eta Lehen Hezkuntzako berezitasunenak. Beste ikastegietan, 10 eta 20 irakasgai bitartean eskainiko dira, Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskolan izan ezik (4). Gradu berriei dagokienez Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateak ere euskaraz eskainiko ditu irakasgai gehienak (55) lau graduetan, Haur eta Lehen Hezkuntzako Irakasleen Graduak osorik euskaraz eskaintzen direlako. Telekomunikazio eta Industria Ingeniarien Eskolan 28 irakasgai euskaraz eskainiko dira 5 graduetan. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean 14 irakasgai euskaraz eskainiko dira hiru graduetan. Nekazaritza Ingeniarien Eskolan 8 irakasgai euskaraz eskainiko dira gradu batean. Zientzia Juridikoen Fakultateak 5 irakasgai euskaraz eskainiko ditu hiru graduetan. Eta Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskolan irakasgai 1 eskainiko da bi graduetan, horietako bat Tuterako Campusean emango da. 2010-2011 ikasturtean euskaraz eskainiko diren irakasgai osoak 201 izango dira.

Euskararen Plan Estrategikoak ezartzen dituen ekintzen artean dago unibertsitatean euskararen erabilera ahalbidetuko duten mekanismoak garatzea, eta Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, 2007ko apirilaren 23an, euskara erabiltzeko jarraibideak onetsi zituen. Ondoren, euskara unibertsitatean erabiltzeko gidaliburu baten beharra ikusi da unibertsitateko esparruetan errazago erabili ahal izateko. 2010eko maiatzaren 14an Gobernu Kontseiluak "Nafarroako Unibertsitate Publikoan Euskara Era-

biltzeko Jarraibideak Garatzeko eta Unibertsitatearen Euskarrietan Aplikatzeko Gidaliburua” izeneko erabakia onetsi zuen. Erabaki honetan euskararen erabilerarako jarraibideak garatzeko gidaliburua eta hura unibertsitatearen euskarrietan aplikatzea ezartzen du. Erabaki denetik aurrera unibertsitatean indarrean jarriko da zerbitzu guztietara gidaliburua aplikatzeko prozedurari buruzko informazioa emanez: marka grafiko eta seinaleztapena, ekitaldi eta argitalpenak, komunikabideak, jendaurreko harrera, jendeari arreta idatziz egitea, webgunea, posta elektronikoa, Administrazio publikoen arteko harremanak, dokumentuak aurkezteko modua, zientzia-argitalpenak, publizitatea eta sustapena, eta euskara eta gaztelania aplikatzeko irizpide orokorrak.

Ikasturte honetako amaieran, unibertsitatea bere III. Plan Estrategikoaren prestaketan murgilduta dago. Horren ondorioz Euskararen Plan Estrategiko berri bat gauzatzea izango da hurrengo urrats nagusia.■

ERREFERENTZIAK

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15koa, 1986ko abenduaren 16ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala.

159/1988 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa Nafarroako Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan euskararen ezarpena eta erabilera arautzen duena, ekainaren 1eko Nafarroako Aldizkari Ofiziala.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Administrazio-Jardueran Euskara Arautzeko Behin-Behineko Plana. 1993ko azaroaren 3an Gobernu Batzordeak onetsia.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Hizkuntza Normalizaziorako Egitasmoa 1995. 1995eko otsailaren 6an onetsia.

110/2003 Foru Dekretua, maiatzaren 12koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuak onesten dituen, Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 63. zenbakia, 2003.eko maiatzaren 19a.

Gobierno de Navarra (2004) *Estudio Sociolingüístico sobre el Vascuence en Navarra*. 2003. *Competencia lingüística, uso y actitudes*. Pamplona-Iruña: Departamento de Educación del Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Euskararen Plan Estrategikoa 2007-2009. 2007ko martxoaren 13an Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Batzordeak onetsia.

Eusko Jaurlaritzak (2008) *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006*. Donostia: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Sotés, P.; Oroz, N. eta Vilches, C. (2008) *NUPeKo Ikasleen Jarrerak eta Usteak Elebitasunaren eta Hezkuntza Elebidunaren Aurrean*. Iruña: Nafarroako Gobernua.

Nafarroako Gobernua (2009) *Euskararen Egoera Nafarroan 2008*. Azterlan soziolinguistikoa. Iruña: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua.

Administrazio eta zerbitzuetako langileen artean EGA tituludunak edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko 5. maila dutenak 50 dira osotara. Honek suposatzen du Europako Marko Bateratuaren arabera unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako langileen %10,52 erabiltzaile gaituak direla.

Euskararen Plan Estrategikoak ezartzen dituen ekintzen artean dago unibertsitatean euskararen erabilera ahalbidetuko duten mekanismoak garatzea, eta Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, 2007ko apirilaren 23an, euskara erabiltzeko jarraibideak onetsi zituen.

***Ikasturte honetako
amaieran, unibertsitatea
bere III. Plan
Estrategikoaren
prestaketan murgilduta
dago. Horren ondorioz
Euskararen Plan
Estrategiko berri bat
gauzatzea izango da
hurrengo urrats nagusia.***

32/2009 Erabakia, maiatzaren 7ko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Hizkuntza Eskakizunak Ezartzeko Jarraibideak definitzen dituena.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Euskaraz Irakasteko Hizkuntza Gaitasunari buruzko Arauketa, maiatzaren 25eko 30/2004 Erabakiaz onetsia eta maiatzaren 7ko 31/2009 Erabakiak aldatua.

2010ko Erabakia, maiatzaren 14koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Euskara Erabiltzeko Jarraibideak Garatzeko eta Unibertsitatearen Euskarrietan Aplikatzeko Gidaliburua onesten duena.

Pastor, J. M. eta Pérez, F. (2008) *La Contribución Socioeconómica de la Universidad del País Vasco*. Valencia: Ivie.

Pastor, J.M. eta Peraita, C. (Zuzendariak) (2010) *La Contribución Socioeconómica de la Universidad Pública de Navarra*. Pamplona-Iruña: Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa.